

Gidabaimenen eta gidalizentzien baliozkotasun-epaia

BAIMENAK ETA LIZENTZIAK	BERRITZEA	BALDINTZAK
AM, A1, A2, A, B eta B+E LCM eta LVA.	10 urtean behin	Titularrak 65 urte baino gutxiago dituen bitartean.
	5 urtean behin	Titularrak 65 urte betetzen dituenetik aurrera.

Osasun-azterketaren ziurtagiria (psikoteknikoa)

Baimendutako zentroek gidarien osasun-azterketa (nahitaezkoa) egiten dute, eta, **ziurtagiri** baten bidez, **gidariak gidatu ahal izateko gaitasun psikofisikoak** dituela egiaztatzen dute. Horien arabera, gidabaimenak arruntak edo ezohikoak izan daitezke..

Puntuakako baimena

Helburua berriro heztea da, gidariak sentsibilizatzeko eta berrezteko ikastaroak eginez gidari arau-hausleen jokabidea zuzentzeko.

12 PUNTU

Hasierako esleipen orokorra.

HOBARIA

Puntuak kentzen dituen arau-hausterik egiten ez duten gidariak saritzeko.

8 PUNTU

Honako hauek lortzen dituzten gidari titularrak izan ezik:

- Gidabaimen edo gidalizentzia bat lehen aldiz.
- Baimena edo lizentzia berriro ere, puntu-esleipen osoa galdu ondoren.

Bi kasu horietan, bi urte pasatzen badira puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe, **12 puntu** izatera pasatuko dira.

8 PUNTU

→ **2 urte** puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe.

12 PUNTU

→ **3 urte** puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe.

14 PUNTU

→ **3 urte** puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe.

15 PUNTU

Puntuak partzialki edo gutzit berreskuratzea

Puntuak **partzialki berreskuratze**ko bi modu daude:

- Gehienez **4 puntu**, bi urtean behin, **10 orduko ikastaro** baten bidez. (Gidari profesionalak urtean behin).
- puntuak berreskuratuko dira, baldin eta **bi urtean ez bada puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin**, arau-hauste astunak edo oso astunak diren kontuan hartu gabe.
- **Puntu guztiak** berreskuratzeke, **20 orduko ikastaro** bat egin behar da, eta azterketa bat gainditu. puntuak galdu direnetik gutxienez denbora hau igaro behar da:
 - **6 hilabete** (12 hilabete, puntu guztiak baimena berriro lortu ondorengo hiru urteetan galtzen badira).
 - **3 hilabete**, gidari profesionalentzat. (6 hilabete, berriro lortu ondorengo hiru urteetan berriz ere puntu guztiak galtzen badira).

Baldin eta, epai judizial bidez, baimena kentzea agintzen bada, **baimen hori 24 orduko ikastaro bat** eginez berreskuratu ahal izango da: epaia baino lehen zeukan saldoarekin, azterketa egin beharrik izan gabe (bi urtera arte gabetzean), edo **8 puntuko saldoarekin, azterketa bat gainditu ondoren** (bi urte baino gehiagorako gabetzean).